

***Deskonfinamenduaren 0 fasean saltoki eta zerbitzu jakin batzuk jendearentzat irekitzeko baldintzak eta babes-neurriak (SND/388/2020 Agindua, maiatzaren 3koa)***

**TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO ETA ANTZEKO ZERBITZUAK EMATEKO ESTABLEZIMENDUAK ETA LOKALAK BERRIRO IREKITZEA**

**Zein lokal edo establezimendu ireki daitezke berriro jendearentzat maiatzaren 4an?**

- Alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera jarduera eten zaien txikizkako merkataritza-establezimendu eta -lokal guztiak eta zerbitzu profesioaletako jardueretakoak (ile-apaindegia eta estetika-zentroak barne), salbu eta 400 metro koadrotik gorako azalera dutenak eta merkataritza-gune edo merkataritza-parke izaera dutenak, edo horien barruan daudenak, kanpotik sarbide zuzen eta independenterik gabe.

**Betekizunak:**

- Aurretiko hitzorduen sistema bat ezarriko da, langile bakoitzeko bezero bakar bat une berean establezimenduaren edo lokalaren barruan egongo dela bermatzeko, eta ezin izango da itxarongunerik gaitu barruan.
- (\*) Bezeroari arreta indibidualizatua emango zaiola bermatuko da, behar den bereizketa fisikoarekin; hori ezinezkoa bada, mostradoreak edo manparak jarriko dira.
- (\*) Higiene, edukiera eta babes neurriak aurreikusten dira langileentzat eta bezeroentzat.
- 65 urtetik gorakoentzako lehentasunezko arreta-ordutegia ezarriko da. Ordutegi hori bat etorri beharko da kolektibo horren jarduera fisikoa eta ibilaldiak egiteko ordutarteekin.
- Erositako produktuak lokalean biltzeko sistemak ezarri ahal izango dira, betiere lokalaren barruan edo sarbidean jende-pilaketak saihestuko dituen bilketa mailakatuak bermatzen bada.
- Artikulu honetan aipatzen diren establezimendu eta lokaletarako joan-etorriak bizi diren udalerrien barruan bakarrik egin ahal izango dira, salbu eta zerbitzua edo produktua udalerririk horretan eskuragarri ez badago.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzat irekitzeko baimena duten jarduera, establezimendu eta lokalek irekita jarraitu ahal izango dute baldintza berberetan, agindu honetan aurreikusten diren segurtasun- eta higiene-neurriak betetzeari kalterik egin gabe.

**(\*) BABES, HIGIENE ETA EDUKIERA NEURRIAK LANGILEENTZAT ETA BEZEROENTZAT**

**Jendearentzat irekita dauden establezimendu eta lokaletan aplikatu beharreko higie-neurriak:**

- Gutxienez egunean bitan garbitu eta desinfektatuko dira instalazioak, eta arreta berezia jarriko zaie ukipen-gainazal ohikoenei, hala nola ateen heldulekuei, mostradoreei, altzariei, eskudelei, banaketa-makinei, zoruei, telefonoei, pertxei, gurdiei eta saskiei, txorrorei eta antzeko ezaugarriak dituzten beste elementu batzuei, honako jarraibide hauen arabera:
  - Garbiketetako bat, nahitaez, eguna amaitzean egingo da;
  - Desinfektatzaileak erabiliko dira, hala nola lixiba-diluzio (1:50) prestatu berriak edo jarduera biruzida duen edozein desinfektatzaile, merkatuan dagoena eta Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratu duena. Desinfektatzaile komertzial bat erabiltzen bada, etiketako oharrak errespetatuko dira.
  - Garbiketa bakoitzaren ondoren, erabilitako materialak eta norbera babesteko ekipamenduak (NBE) modu seguruan botako dira, eta, ondoren, eskuak garbituko dira.
  - Garbiketa hori egiteko, lanaldian zehar eta, ahal dela, eguerdian, irekitze-etenaldi bat egin ahal izango da, mantentze-, garbiketa- eta birjartze-lanak egiteko.
  - Era berean, txanda-aldaketa bakoitzean lanpostuak garbitu eta desinfektatuko dira, eta arreta berezia jarriko zaie mostradoreei, manparei, teklatuei, ordainpeko terminalei, ukipen-pantailei, lan-tresnei eta manipulatu daitezkeen beste elementu batzuei. Arreta berezia jarriko zaie langile batek baino gehiagok erabiltzen dituztenei.
  - Establezimenduan edo lokalean jendeari arreta emateko langile bat baino gehiago egon behar bada, garbiketa-neurriak ez dira merkataritza-eremura bakarrik zabalduko, baizik eta baita, hala badagokio, langileen eremu pribatuetara ere, hala nola aldagelak, armairuak, komunak, sukaldeak eta
- Egunero garbitu eta desinfektatuko dira uniformeak eta laneko arropa, hala badagokio, eta mekanikoki garbitu beharko dira 60 eta 90 gradu zentigradu arteko garbiketa-zikloetan. Uniformea edo laneko arropa erabiltzen ez den kasuetan, bezeroekin kontaktuan dauden langileek erabilitako arropak ere arestian adierazitako baldintzetan garbitu beharko dira.
- Merkataritza-establezimendu eta -lokalen aireztapen egokia bermatuko da.
- Bezeroek ez dituzte merkataritza-establezimenduetako komunak erabiliko, behar-beharrezkoa denean izan ezik. Azken kasu horretan, berehala garbituko dira komun-ontziak, txorrotrak eta ateko heldulekuak.
- Establezimendu eta lokal guztiek paperontziak izan beharko dituzte, ahal dela tapa eta pedaldunak, zapiak eta erabili eta botatzeko beste edozein material uzteko. Paperontzi horiek maiz eta gutxienez egunean behin garbitu beharko dira.

**Jendeari irekitako establezimendu eta lokaletan zerbitzuak ematen dituzten langileentzako arriskuen prebentzio-neurriak:**

- Honako langile hauek ezin izango dira beren lanpostuetara itzuli merkataritza-establezimenduetan:
  - Berriro irekitzeko unean COVID-19aren diagnostikoa izategatik etxeko isolamenduan dauden langileak, COVID-19arekin bateragarriak diren sintometako bat dutenak edo etxeko berrogeialdian daudenak, pertsonaren batekin kontaktua izan dutelako, sintomak dira edo diagnostikatuta daude.
- Titularrak, nolana ere, indarrean dagoen legerian ezarritako arriskuak prebenitzeko betebeharrak bete beharko ditu, bai oro har, bai berariaz, COVID-19a ez kutsatzeko.
  - Langile guztiek arrisku-mailarako egokiak diren norbera babesteko ekipamenduak dituztela ziurtatuko du, baita jarduera biruzida duten gel hidroalkoholikoak dituztela ere, eskuak garbitzeko Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratutakoak, edo, hori ezinezkoa denean, ura eta xaboa. Maskarak erabiltzea nahitaezkoa izango da langilearen eta bezeroaren artean edo langileen artean 2 metro inguruko segurtasun-tartea bermatu ezin denean. Langile guztiek babes-ekipamendu horiek behar bezala erabiltzeko prestakuntza eta informazioa izan beharko dute.
  - Lokalean edo establezimenduan zerbitzuak ematen dituzten hirugarren enpresetako langile guztiei ere aplikatuko zaie aurrekoa, normalean edo noizean behin.
- Hatz-marka duen fitxaketaren ordez, neurri higienikoak bermatzen dituen ordutegi-kontrolako beste edozein sistema erabiliko da, edo, bestela, fitxatzeko gailua desinfektatu beharko da erabili aurretik eta ondoren, langileei neurri horren berri emanez.
- Lanpostuen antolamendua, txanden antolaketa eta gainerako lan-baldintzak aldatu egingo dira, langileen artean gutxienez 2 metroko segurtasun-distantzia bermatzeko. Jarduera ekonomikoaren titularraren edo hark eskuordetzen duen pertsonaren erantzukizuna izango da hori.
  - Bezeroaren arreta-prozesu osoan, langilearen eta bezeroaren arteko distantzia metro batekoa izango da, gutxienez, babes-elementuak edo hesiak daudenean, edo 2 metrokoa, gutxi gorabehera, elementu horiek ez daudenean.
  - Pertsonen arteko segurtasun-tartea mantentzea ahalbidetzen ez duten zerbitzuen kasuan (adibidez, ile-apaindegiak, estetika-zentroak edo fisioterapia-zentroak), langilearen eta bezeroaren babesa bermatzen duen norbera babesteko ekipamendu egokia erabili beharko da, eta bezero baten eta bestearen artean 2 metroko tartea mantentzen dela ziurtatu beharko da.
- Era berean, agindu honetan aurreikusitako distantzia-neurriak langileen aldageletan, armairuetan eta komunetan bete beharko dira, baita atsedun-guneetan, jantokietan, sukaldeetan eta erabilera komuneke beste edozein eremutan ere.



### **Establezimendu eta lokalen barruan bezeroei aplikatu beharreko babes- eta higiene-neurriak:**

- Establezimendu eta lokaletan eman beharreko denbora bezeroek erosketak egin edo zerbitzua jaso ahal izateko behar-beharrezkoa den denbora baino ez da izango.
- Aldi berean bezero bat baino gehiagoren arreta pertsonalizatua posible den establezimenduetan, argi eta garbi adierazi beharko da bezeroen arteko bi metroko segurtasun-distantzia, lurrean markak jarrita, edo balizak, kartelak eta seinaleak erabilita. Nolanahi ere, langile berak ezin izango du bezeroei aldi berean arreta eman.
- Establezimenduek eta lokalek jarduera biruzida duten gel hidroalkoholikoek banatzaileak jarri beharko dituzte jendearen eskura, lokalen sarreran, Osasun Ministerioak baimenduta eta erregistratuta, eta beti erabilera-baldintzetan egon beharko dute.
- Autozerbitzurako guneak dituzten establezimendu eta merkataritza-lokaletan, establezimenduko langile batek eman beharko du zerbitzua, bezeroek produktuak zuzenean manipulatu ez ditzaten.
- Bezeroen eskura ezin izango da proba-produkturik jarri.
- Ehungintzaren eta arropa eta antzekoak konpontzeko sektoreko establezimenduetan, probatzaileak pertsona bakar batek erabili beharko ditu, eta, erabili ondoren, garbitu eta desinfektatu egingo dira.
  - Bezero batek gero eskuratuko ez duen jantzi bat frogatzen badu, establezimenduaren titularrak neurriak ezarriko ditu jantzia higienizatzeko, beste bezero batzuei eman aurretik.